



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA
HE2

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Txapelketan parte hartzeari ere egon zen, baina baiezkoa eman zuen.

- a) men egitekotan
- b) eustekotan
- c) heltzekotan
- d) uko egitekotan

2 Bertoko ekoizleak,, hiruzpalau baino ez gara.

- a) nik jakitekotan
- b) nik jakin
- c) nik baneki
- d) nik dakidala

3 Zein da zuzena?

- a) Bertaratzeak besteko garrantzia du adi egoteak.
- b) Bertaratzeak bezain garrantzia du adi egoteak.
- c) Bertaratzea beste garrantzizkoa da adi egotea.
- d) Bertaratzea adina garrantzitsua da adi egotea.

4 Zein da gramatika aldetik zuzena?

- a) Inork ere ez die azaldu ikasle horiei zer egingo
- b) Ez dakit nola azalduko dut, baina saiatuko naiz.
- c) Galdetu ikasleei zer desberdintasun dago bien artean.
- d) Zergatik begiratzen diozu hainbeste bestek esan duenari?

5 Ez zuten uste Oñatiko Unibertsitate zaharrak orduko beharrak eta premiak ase

- a) zitzakeenik.
- b) ditzakeenik.
- c) zitezkeenik.
- d) litzakeenik.

6 "Istripu horretan zaurituak hiru izan ei dira". Zein da baliokidea?

- a) Hiru zauritu izan ohi dira.
- b) Hiru zauritu izan omen dira.
- c) Hiru zauritu izan ote dira.
- d) Hiru zauritu izan dira.

7 Jende ikasia izan arren, inor ez zen gauza izan esaera horren mamiari

- a) atzemateko.
- b) antzemateko.
- c) asmatzeko.
- d) harrapatzeko.

8 Zein da gramatika aldetik zuzena?

- a) Gurasoak banatzean gehien sufritzen dena umea izaten da.
- b) Zure begikoa ez bada ere, begirunea zor diozu irakasleari.
- c) Zenbat aldiz sakabanatu dute anai-arrebak elkarrengandik?
- d) Gizarteak ulertu behar du umeen zainketa ez dela genero-konturik.

9 Diren baino hamar ardanegi gehiago irekiko balira, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko.

- a) bezalako
- b) halako
- c) bestelako
- d) dinako



10 Berlusconi esandakoak hautsak ditu Italian.

- a) jaso
- b) eragin
- c) harrotu
- d) nahastu

11 Idazleak, labor eta arin mintzatzeaz gainera, umore ttantta bat isur baleza,

- a) ahalik eta hobekien.
- b) albait ondoen.
- c) hain ondo.
- d) hainbat hobeto.

12 Espero dut egun horretan eguraldi ona

- a) egin lezakeela.
- b) egin duela.
- c) egingo duela.
- d) egiten duela.

13 Paregabea zen irakasle hura; alegia.

- a) axolagabea
- b) bakartia
- c) berebizikoa
- d) arduratsua

14 "Kritikorik sonatueneke ere maiz egiten dute kolpe huts, obrarik bikainenak gutxietsiz eta txepelenak goraipatuz." Zer dio kritikoei buruz?

- a) Egurra ematen dietela lan hutsalei.
- b) Hanka-sartze ederrak egiten dituztela.
- c) Soilik lan bikainak balioesten dituztela.
- d) Idazle ahulei adore ematen dietela.

**15 "Seme-alabek larrutu egin dute aita gizagaixoa".
Zer adierazi nahi du?**

- a) Guztiek babestu dute.
- b) Ondasunak kendu dizkiote.
- c) Adeitsu hartu dute.
- d) Abandonatu egin dute.

16 "Ipuin xalo honek, ikusle bati baino gehiagori, ahoa gozaten diolakoan, sabela mingostuko dio". Zer adierazi nahi du?

- a) Ustekabe ederra emango dio.
- b) Ahoa gozatu bai, baina tripako mina emango dio.
- c) Plazerak berekin dakar desplazera.
- d) Ipuin txarrek ez gaituzte asebetetzen.

17 Zer uste zenuen, bada? Zuri ere beste edonori bezalaxe gerta

- a) lekizuke.
- b) leikezu.
- c) litzaizuke.
- d) lizuke.

18 Jende ezaguna izaten da epaimahaikoa;, nekazaritzan eskarmentu handia duena.

- a) horregatik hain zuzen
- b) hori dela eta
- c) oro har
- d) auskalo

19 Hitz-zerrenda hauetako batean hitz bat lekuz kanpo dago. Non?

- a) Ostu, lapurtu, ebatsi
- b) Soildu, inausi, bakandu
- c) Tori, eutsi, heldu
- d) Jarri, ezarri, iragazi



20 Estiloak bereizten ditu bi taldeak,, jokoan bakoitzak duen taktikak.

- a) haatik
- b) aldiz
- c) hots
- d) aitzitik

21 pirata gaztearen auzia berriro aztertuko

- a) Ustezko
- b) Nolanahiko
- c) Zorizko
- d) Baldintzazko

22 Lehiaketa batean bi filmek balorazio bera dutenean, emakumeen lanak dituzte.

- a) lehenetsiko
- b) balioetsiko
- c) goretsiko
- d) aintzatetsiko

23 Duela zenbait urte -ez hainbeste,, gauzak oso bestelakoak ziren.

- a) adibidez
- b) horratik
- c) izan ere
- d) bada

24 Zigorra jarri dizu irakasleak eta suminduta zaude, baina jarri dizu.

- a) hobe beharrez
- b) ondoz ondo
- c) onez onean
- d) zure ontzat

25 Ondotxo nekien esku artean zer

- a) zenbiltzaten.
- b) zenezkaten.
- c) zenerabilten.
- d) zenekartzaten.

26 Goizean goiz hasita, trikitilariak ibiliko dira Markinako herritarren gogoia berotzen.

- a) kale barrutik
- b) kaleetan barrena
- c) kalez kale
- d) kaleen zehar

27 Gu pozik gaudela? Bai zera!

- a) Ezta hurrik eman ere!
- b) Ez ederki eman ere!
- c) Ezta horrela eman ere!
- d) Nork ez daki!

28 Ondo ari nintzen partida jokatzen, baina izan dut eta gelditu egin behar.

- a) makalaldia
- b) jokaldia
- c) piztualdia
- d) susperraldia

29 Talde bihurri samarra egokitu zait aurten eta ezinean nabil; ikasle-talde honek

- a) begirunea dit.
- b) gaina hartu dit.
- c) aintzat hartu nau.
- d) lasaitu egiten nau.



30 Bere sorterrian ere gorazarre egin eta bertako alaba izendatu nahi dute.

- a) lirain
- b) panpox
- c) kuttun
- d) handi

31 Gehitxoago estimatuko, ez horrelako astakeriarik esango.

- a) baninduzu / zintuzket
- b) baninduzun / zenidake
- c) baninduzu / zenidake
- d) bazenit / zenidan

32 Arartekoak neurriak proposatu ditu transexualen aurkako diskriminazio-egoerak

- a) sustatzeko.
- b) bermatzeko.
- c) garatzeko.
- d) saihesteko.

33 Gaur egun informazio gehiago daukagu; baina, eta, jakintsuagoak ote gara?

- a) hain zuzen ere
- b) ezina ekinez egina
- c) besterik ezean
- d) hor dago gakoa

34 Guztiei pasa zitzaien abisua: zuzendariak ikasketaburuari, ikasketaburuak mintegiburuei eta horrela

- a) batik bat.
- b) besteak beste.
- c) denak atzean.
- d) hurrenez hurren.

35 "Nobela horrek, bere sailean, besteren zorrik ez duela iruditu zait". Zer adierazi nahi du?

- a) Bere burua ordaindu duela.
- b) Idazleak ez duela galerarik izan.
- c) Oso bestelako nobela dela.
- d) Besteak bezain ona dela.

36 "Erruduna libre, eta betiko gizagaixoari leporatu diote errua". Zein da jarraipen egokia?

- a) Izango ez da, bada!
- b) Marka da gero!
- c) Horrelaxe izanik ere!
- d) Inork entzutea gero!

37 Non dago "a itsatsia" ondo erabilia?

- a) Zoramena horrek gutxi irauten du.
- b) Sena handia dauka ikerlari horrek.
- c) Horrek edateko adinarik ez dauka.
- d) Aitzakiarik gabeko nobela duzu hori.

38 Bide ibiliak, betikoak, erosoak eta maldarik gabeak izan ohi dira, ezagunaren ezagunez aspertzen

- a) bagaituzte ere.
- b) gaituztelako.
- c) gaituztenez.
- d) gaituzte eta.

39 Parranda ondoko lo sakonetik esnatu eta aritu ginen luzaro.

- a) nagiak egiten
- b) nagiak arintzen
- c) nagiak luzatzen
- d) nagiak ateratzen



40 Zuek lehentxoago esandakoari ongi

- a) derizkit
- b) deritzaiot
- c) deritzot
- d) deritzait

41 "Gaztetasunaren kemena eta sua dario alde guztietatik, ile urdinak gorabehera". Zein da baliokidea?

- a) Den baino gazteagoa ematen du ile nahasi horiekin.
- b) Ileak besterik badio ere, gazte jarraitzen du.
- c) A zer nolako gaztea, ilea tindatuko ez balu!
- d) Ilajea disimula liteke; ez, ordea, gaztetasuna.

42 Esaten digutenaren zain itsu-itsuan bagaude, egun hona eta bihar hara ibiliko gara, bezala.

- a) arranoa bortuetan
- b) orbela haizetan
- c) ura itsasoan
- d) artzaina mendian

43 Hainbeste jostailuren artean,

- a) daukazu zer aukeraturik.
- b) badaukazu zer aukeratu.
- c) daukazu aukera-maukera.
- d) badaukazu non aukeratzeko.

44 Egoskorra zen Pio Baroja bere maitasun-gorrotoetan. Hari beste aldea erakusten saiatuko zinen, baina, alferrik!

- a) Lehengo lepotik hark burua.
- b) Zozoak beleari ipurbeltz.
- c) Hark hogeita hamaika eskutik.
- d) Hura beti bezain etorkor.

45 Badakit epe luzea daukadala ordaintzeko, baina,, nahiago dut lehenbailehen egin eta kito.

- a) itxuraz
- b) alegia
- c) aukeran
- d) antza

46 Ikaragarriak izan ziren hango salmentak. Arnasa hartzeko asti barik aritu ginen saldu eta saldu. Hura.....

- a) zoragarri!
- b) zorakeria!
- c) zoramena!
- d) zoroa!

47 "Nobela baten barruan zenbat istorio sar daitezkeen dastatzeko ematen digu liburuak".

- a) parada
- b) atsedena
- c) jauzia
- d) laburpena

48 Hiru lagun espetxeratu dituzte, azken lapurretak

.....

- a) oroituta.
- b) salatuta.
- c) egotzita.
- d) deitoratuta.

49 "Nahiago nuke" Zein dago GAIZKI?

- a) zeuk egingo baduzu
- b) zeuk egitea
- c) zeuk egingo bazenu
- d) zeuk eginda



50 Abortuaren Legea dela eta, medikuen kontuan hartzeko eskatu dute.

- a) kontzientzia-aitorpena
- b) kontzientzia-onarpena
- c) kontzientzia-eragozpena
- d) kontzientzia-kargua

51 "Nadal eta Federer, gaur eguneko tenislarik bikainenak dira".

- a) biak baizik
- b) biak baita
- c) biak ala biak
- d) bata ala bestea

52 Oraingo krisi larri honek

- a) soka astuna eragingo du.
- b) soka luzea ekarriko du.
- c) soka batean sartu gaitu.
- d) soka motza urratuko du.

53 Agian ez duzu diru horren beharrik izango, baina,, gorde ezazu.

- a) zer erremedio
- b) zer dela eta
- c) zer esanik ez
- d) zer gerta ere

54 Batek daki zertan gaztetxo horrek.

- a) dagoen
- b) dabilen
- c) ari den
- d) diharduen

55 "Ederrak gaude gu gaurko politika kontuak ulertzeko!" Zein da baliokidea?

- a) Ederki informatuta gaude.
- b) Abilezia dugu horretan.
- c) Ez gara gai horretarako.
- d) Guk ere berdin egingo genuke.

56 Eskultura hain da handia ez museoko ate nagusitik ere sartzen.

- a) ezen / baita
- b) ezen / bada
- c) non / da
- d) zeren / den

57 Ez nau ezerk ez inork behartu horretara; agindu dit.

- a) barrenak
- b) zoriak
- c) beharrak
- d) gaitasunak

58 Euskal Herria krisiak jota dago, baina Alemania ere ez dago hobeto. Han ere

- a) zakurrak oinutsik.
- b) zorriak gertutik.
- c) txerriak ezkurra gose.
- d) kukua kukuka.

59 Behin eta berriro erregutu genion ez tranparik egin.

- a) zizkigula
- b) zitzala
- c) zezala
- d) zezakeela



60 Orain badakigu marrazki-filmeak ez direla nahitaez haur-jolasak edo jostailu atseginak. Txantxetan eta irribarrez ez ezik, zinez eta ere mintzatzen badakite.

- a) barrez
- b) zurikeriaz
- c) bromatan
- d) benetan

61 "Zu musikazalea zaitugu inondik ere". Zer adierazi nahi du?

- a) Agian musikazalea dela.
- b) Musikazalea dela dudarik gabe.
- c) Ez daukala halakoaren itxurarik.
- d) Auskalo nondik datorkion zaletasuna.

62 EAEn % 28 dira bihotzeko gaitzak heriotzak.

- a) ereindako
- b) erasotako
- c) eragindako
- d) izandako

63 Bere seme Mauriziot jotzen du orain txistua, eta!

- a) nola jo baita!
- b) nola jo hain zuzen!
- c) nola jo alegia!
- d) nola jo ere!

64 Eta nor ausart zitekeen horrenbeste arriskuren erdian Ulises?

- a) izan ezik
- b) izan gabe
- c) besterik ez
- d) besteak beste

65 "ETSI-ETSIAN elkarrekin bizitzen ikasi beharra daukagu". Zein da baliokidea?

- a) Estu-estu
- b) Geure kasa
- c) Ezinbestean
- d) Onez onean

66 Garai zail hauetan gurasoek eta irakasleok batera jokatu behar dugu; hau da,

- a) elkar zainduta.
- b) elkar batuta.
- c) elkar hitz eginda.
- d) elkar hartuta.

67 Telebistako saio berriaren aurkezleak dituen barregarriak dira askotan.

- a) asperraldiak
- b) ateraldiak
- c) astinaldiak
- d) aisialdiak

68 Afaltzen garaiz eman, ez azken trena galduko.

- a) baziguten / genuen
- b) baliguke /genuke
- c) bazigun /genuke
- d) baligute / genuen

69 Pasabide estua zen, baina handik igaro beste erremediorik ez geneukan;

- a) ezin genuen atzera bota.
- b) ezin genuen atzeratu.
- c) ezin genuen atzera egin.
- d) ez zegoen atzera ibiltzerik.



70 Urriko azken astelehena egun arrunta da edonon; Gernikan ez,

- a) hain zuzen.
- b) behintzat.
- c) izan ere.
- d) ordea.



ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE2

1	D	11	D	21	A	31	C	41	B	51	C	61	B
2	D	12	C	22	A	32	D	42	B	52	B	62	C
3	A	13	C	23	B	33	D	43	B	53	D	63	D
4	D	14	B	24	A	34	D	44	A	54	D	64	A
5	A	15	B	25	C	35	D	45	C	55	C	65	C
6	B	16	A	26	B	36	B	46	C	56	A	66	D
7	B	17	A	27	A	37	D	47	A	57	A	67	B
8	B	18	C	28	A	38	A	48	C	58	A	68	D
9	B	19	D	29	B	39	D	49	A	59	C	69	C
10	C	20	C	30	C	40	C	50	C	60	D	70	D